

Apirilaren 19an Ikaskide jardunaldiaren 3. aldia egingo da

2013/04/04

EGITARAUA

08:45 Harrera. Material banaketa

09:00 Agurra. Nekane Arratibel / Patxi Olabarria

09:30 Hitzaldia. Antonio Bolivar, Granadako Unibertsitatea:
"Comunidades profesionales de aprendizaje".

11:00 Kafea

11:30 Hitzaldia: Ana Usabiaga (HUHEZI): "Ikaskidetza eta inklusioa".

12:45 Ikaskide taldeen proiektua.

A taldea: Ikasten Ikastea: printzipioak, estrategia metodologikoak, esperientziak. Talde aurkezpena: Mariam Bilbatua koord. Huhezi Fakultatea

B Taldea: Elkarrekin ikasi: Ikasarea. Printzipioak, estrategia metodologikoak, esperientziak. Talde aurkezpena: Ainara Artetxe koord. HUHEZI Fakultatea

14:00 Partaidetza sustatzeko estrategiak. Arte tailerrak. Garaion Koop. E.

15:00 Luntxa / Bazkaria

Ikaskide taldeak

Proiektu hau 2009an sortu zen, eta bertan zortzi ikastetxe hasi ziren lanean. Denek konpromisoa hartu zuten proposamenak landuko zituztela metodologia berria ezarri, esperimentatu eta elkartrukatzeko, eta horretarako HUHEZI fakultateak formazioa eta aholkularitza eskaini zien, beti ere "ikerketara jarduerara" ildo metodologikoan oinarrituta, hau da, gelako jardueren azterketan, hausnarketan eta hobekuntza proposamenetan. 2011-2012 ikasturtean sei ikastetxe gehiago sartu ziren prozesuan, eta hurrengo ikasturtean, beste bi.

Jardunaldiko gaia

Jardunaldiak aurkeztu nahi du zer erantzun ematen ari zaion identifikatutako erronka bati, hain zuzen ere, lankidetza dinamika eraginkor eta efikaza garatzea: "IKASARE. Ikaskidetzan oinarritutako Konpetentzien garapen eredu". Horretarako, antolatzaileak sare bat hasi dira eraikitzen (unibertsitatea-ikastetxea, ikastetxea-ikastetxea), eta dinamika berriak sortu, bertan aholkularitza ematen dela ikastaro, mintegi, behaketa gelak eta saio presentzialak erabilia, beti ere arazo eta kasu errealen ebazpenean oinarri hartuta. Helburua baita ikaskuntzan dauden erakundeak akuilatzea, pertsona bakoitzaren beharretara zuzendutako etengabeko ikaskuntza eskain dezaten.

